

EUSKO JAURLARITZAKO UNIBERTSITATE BEKA OROKORREI

BURUZKO OHIKO GALDERAK. 2018-2019 IKASTURTEA

ESKAERA AURKEZPENA. BEKEN APLIKAZIOAREN ERABILTZAILE GISA ALTAN EMATEA

1. Zein da nire solaskidea gai honetan?

- Web orrian [unibertsitate bekei](#) buruzko informazio guztia zehatz-mehatz aurkituko duzu.
- EHUKo, Deustuko edo Mondragon Unibertsitateko ikaslea bazara, zure unibertsitateko beka-zerbitzura joan zaitezke eta han zalantza guztiak argituko dizkizute.
- Herritarrari arreta emateko zerbitzu orokorraren gisa, Zuzenean Zerbitzua (012 edo 945-018000 telefonoa) da zure erreferentzia.
- Zure zalantzak uni.ikasketak@euskadi.eus helbidera bidali ditzakezu

2. Internet-eko zein software /nabigatzaile erabili behar dut?

Mozilla Firefox nabigatzailearekin eta Windows ingurune batean, edozein bertsiotan, diseinatuta eta optimizatuta dago aplikazioa. Beste nabigatzaile batekin erabiltzen saiatuz gero, leiho bat, horretaz ohartarazteko mezu batekin, aterako zaizu. Halaber, leiho horrek lotura bat izango du, [deskargatu eta zure ordenagailuan dohainik](#) instalatu ahal izateko, eta ez dizu formularioa betetzen jarraitzen utziko.

3. Zein erabiltzaile eta pasa-hitz erabili behar ditut

Aplikaziorako, zure **erabiltzailea**, betiere, zure identifikazio-agiriaren (NANa edo NIE) zenbakia da eta beka eskatu duen ikaslearena izan behar du. **Pasa-hitzarako** kontuan izan ondorengo informazioa:

- **Aurreko urteetan dagoeneko erabili baduzu**, erabiltzaile eta pasa-hitz berberak erabiliko dituzu.
- **Lehenengo aldiz beka eskatzen ba duzu**, pantailan bertan zehazten diren argibideei kasu eginez eman behar duzu zeure burua altan, [Pasa-hitzaren alta/ Aldaketa](#) lerro urdinean klik eginez.

Zenbait datu osatu beharko dituzu eta, geroago, zure pasa-hitz berria mail-ez edo SMSren bidez bidaliko dizute, eskatu duzunaren arabera. Pasa-hitz berriarekin lehen aldiz sartzen saiatzen zarenean, iraungita dagoela eta pasa-hitz berri bat, 8 karaktererekin (letrak eta zenbakiak), jarri beharko duzula adieraziko dizun mezu bat aterako zaizu. Pasa-hitz berri horrekin ikasturte osorako jarrai ezazu, erabili beharko baituzu zure espedientearen egoera kontsultatu nahi duzun bakoitzean.

- **Pasa-hitza galdu dut edo ez naiz joan den urtekoaz gogoratzen**, bigarren puntuko urratsak eman beharko dituzu.

4. Erabiltzaile gisa altan emateko nire NANA edo NIEa sartzean, akats bat dagoela abisatzeko ohar bat ateratzen da. Zer egin dezaket?

Servicio de recuperación de contraseña

☐ El usuario da su consentimiento para verificar, a través de medios electrónicos, los datos personales que a continuación tiene que introducir

Tipo de identificación: 

Fecha de nacimiento: / / (aaaa-mm-dd) Fecha de caducidad del documento: / / (aaaa-mm-dd)

Forma de Contacto

Por favor, seleccione la forma de contacto a través de la cual se le enviará su usuario y contraseña

☒ Por Correo Electrónico ☐ Por SMS

Introduzca su correo electrónico

Por favor, escriba lo que ve en el siguiente código de seguridad:
(Si no distingue los caracteres correctamente, pulse otra vez sobre la imagen para volverla a generar)



Pantailaren testua berriz irakurri eta zure datu guztiak (NANA, NIEa, jaiotza-data, agiriaren iraungitze-data) ondo osatu dituzula egiazta ezazu. Pasa-hitza SMSren bidez bidaltzeko telefono-zenbakia, edo e-maila-ez bidaltzeko posta elektronikoaren helbidea, zuzenak diren berrikus ezazu.

Berririo saia zaitez eta, akatsak jarraitzen badu, email bat helbide honetara: uni.ikasketak@euskadi.eus bidali behar duzu, eta ondorengo informazioak derrigorrean agertu behar du email horretan:

- Zure NIEren edo NANaren kopia eskaneatua, bi aldeetatik.
- Zure izen-deiturak.
- Email-a eta harremanetan jartzeko telefonoa.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak berrikusiko ditu datuak eta altan emango dizu. Horretarako, abisu bat, zure erabiltzaile eta pasa-hitza berriekekin, bidaliko dizu.

5. Atzerritarra naiz eta, erabiltzaile gisa altan emateko, arazoak ditut NIErekin.

- **Bizileku-baimen KOMUNITARIOA baduzu**, NIEren zk., jaiotze-data eta nazionalitatea osatu behar dituzu.

Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako (Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Txipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxemburg, Malta, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublikak, Errumania eta Suedia) herritarrak bakarrik direla komunitarioak kontuan har ezazu. Gainontzeko estatuetatik, batzuk Espazio Ekonomiko Europarrari buruzko akordioan daude eta, geroago, Suitzako Konfederazioko nazionalak daude.

- **Bizileku-baimen EZ KOMUNITARIOA baduzu**, NIEren zk., jaiotze-data eta nazionalitatea osatu behar dituzu.

Sistemak, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren datu-basearekin konektatzean, akatsik atzemanaz gero, **TIE edo EUSKARRIAREN ZK.** eskatuko dizute.

Servicio de recuperación de contraseña

Es necesario el nº de soporte/TIE del documento (ej. E99999999)

☒ El usuario da su consentimiento para verificar, a través de medios electrónicos, los datos personales que a continuación tiene que introducir

Tipo de identificación: Número de Identidad de Extranjero (NIE no comunitario) X3025110N

Fecha de nacimiento: 1991 / 12 / 15 (aaaa-mm-dd)

TIE: [redacted] Nacionalidad: Marruecos

6. Nola aurki dezaket nire bizileku-baimenaren euskarri-zenbakia edo TIE?

- Atzeritarraren txartela



- Bizileku-baimena



- Batasuneko herritarraren erregistro-ziurtagiria.

Agiria Batasuneko herritarraren erregistro-ziurtagiri bat bada, agiri horretan zenbaki bat jasota agertzen da. **Zenbaki hori, aurretik "C" letrarekin, idatzi behar da. Zenbaki horrek 8 digitu baino gutxiago badu, ezkerretan zeroak jarritz osa daiteke.** Adibidez: zure ziurtagiriaren euskarri-zenbakia 1234567 bada, C01234567 adierazi behar da.



Ziurtagiri zaharretan, tamaina, folioa, ziurtagiriaren zenbakia (euskarri-zenbakia) aurreko aldean agertzen da.

7. Atzerritarra naiz eta nire NIEren jaiotze-datarekin ditut arazoak.

Bizileku-baimen batzuetan jaiotze-data horrela agertzen da: XX/XX/jaiotze-urtea. Data gaizki dagoela adierazteko mezu bat ateratzen bazaizu, horrela jarri behar duzu: 01/01/jaiotze-urtea.

8. Iaz TIE edo NIE bat nuen, baina aurten NANA dut. Zer egin behar dut?

Aurreko galderetan adierazitakoari kasu eginez altan emango duzu zeure burua baina zure egoera aldatu dela jakinarazi beharko duzu eskaeran, aurreko urteen espedienteak aldatu behar direlako.

Horretarako, email bat bidali ahal duzu, uni.ikasketak@euskadi.eus helbidera, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzari, bi agirien kopia eskaneatuarekin. Aldaketa hori eskatzen duzula adieraziko duzu eta, tramitea gauzatua dagoenean, jakinaraziko dizute.

ESKAERA BETETZEAN IZAN DAITEZKEEN ARAZOAK

9. Dagoeneko ari naiz eskaera on-line betetzen baina erabiltzeko arazo teknikoak ditut. Norengana jo behar dut?

Lehenik eta behin, Firefox Mozilla nabigatzailea erabiltzen ari zarela ziurta ezazu, beste nabigatzaile batzuekin arazoak eman baititzake aplikazioak. Arazoa hori ez bada, eskaera beste une batean egiten saia zaitez, batzuetan beken aplikazioa blokea baitaiteke. Azkenik, Zuzenean Zerbitzura (012) dei dezakezu, arazoa zein den baieztatu diezazuten. Ezin badute konpondu, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara desbideratuko da zure deia.

10. Nor sartu behar dut nire elkarbizitza-unitatean?

Ondorengo arauak kontuan izan behar dituzu:

- Zure bizikidetzaren unitateko kide denak jarri, errolda kolektiboan azaltzen diren bezala 2017ko abenduaren 31(a)n, zurekin bizi ez arren.
- Dibortzioaren kasuetan, derrigorrean sartu behar dira aita eta amaren datu pertsonalak, eskatzailearekin erroldatuta egon ez arren. Kasu horretan, ezinbestean aurkeztu behar dira dibortzioaren sententzia eta hitzarmen arautzailea.
- Ez ahaztu kide guztien datu guztiak osatzea, eskatzailearen barne (egoera zibila, desgaitasuna etabar bezalakoak). Gehitu, editatu eta ezabatu aukerak dituzu.
- Ez ahaztu hau: unibertsitate- edo goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka eskatu duen anaia-arrebaren bat baduzu, adieraz ezazu, behar den dedukzioa aplikatu dadin.

11. Senideak elkarbizitza-unitatearen erlaitzean altan ematen saiatzen ari naiz, baina akatsa ematen du eta ezin ditut sartu.

Pantailaren testua berriro irakurri eta identifikazio-agiri zuzena (NANA, komunitario europarra edo bizileku-baimena) erabiltzen duzula egiaztatu ezazu.

Joan den ikasturtean beka eskatu bazenuen, aurreko eskaeran agertzen ziren senide guztien datuak kopiazea gomendatzen dizugu. Elkarbizitza-unitatea kopia nahi duzun galdetuko dizu sistemak eta horrek arazo asko saihestuko ditu. Datuak kopia ondoren, zure elkarbizitza-unitatea aldatu bada, izango duzu zirriborrazeko, editatzeko edo beste kide batzuk gehitzeko aukera.

Berriro saia zaitez eta, akatsak jarraitzen badu, email bat bidali beharko duzu helbide honetara: uni.ikasketak@euskadi.eus, derrigorrean sartu beharreko informazio honekin:

- Zure NIEren edo NANaren kopia eskaneatua, bi aldeetatik.
- Zure izen-deiturak.
- Email-a eta harremanetan jartzeko telefonoa.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak egiaztatuko ditu datuak, altan emango ditu senideak eta eskaera bukatu ahal izateko abisu emango dizute.

12. Gordetzea “ botoian klik egiten dut baina ez da ezer gertatzen.

Pantailaren beheko aldean dagoen “gordetzea “ botoian klik egiten duzunean, programak egiaztatze batzuk egiten ditu eta, zerbait gaizki badago, pantailaren goiko aldean agertzen den letra gorriko mezuari, aurkitu den arazoa adieraziko dizunari, begiratu behar diozu. Halaber, “gordetzea “ botoian klik eginez, biribil gorri batekin markatuko dizkizu erlaintz bakoitzean osatu gabeko datuak dituzten eremuak.

Dena ondo baldin ba dago mezu hau agertuko zaizu: datuak ondo gorde dira.

13. Ez ditut matrikulatuta nagoen ikasketak aurkitzen.

- Lehenik eta behin, aplikazioan gradu eta master ofizialak besterik ez daudela eskura har ezazu kontuan. Unibertsitateen tituluak ez daude, ezin baitira ikasketa mota horretarako bekak eskatu.
- Betiere ibilbide hau jarraitu behar da: **unibertsitatea > campusa> fakultatea /zentroa> matrikulatuta zauden ikasketak.**
- UPV/EHUren kasuan, master /gradu-ondo guztiak gradu-ondoko MEDEA izeneko zentro batean daude Bizkaiko campusean eta hau zabaldu behar da, aurkitzeko
- Urrats hauek eman ondoren ez bada ikasketa aurkitzen, izen ofizial zehatza eta ematen den zentroa zure unibertsitatearekin egiaztatu itzazu. Hau egin ondoren aplikazioan agertzen ez bada, pantailan bertan aukera bat duzu. Han formulario bat zehazten da, ikasketan altan emateko eskaera bat uni.ikasketak@euskadi.eus helbidera bidaltzeko.

- Zure harremanetarako helbide elektronikoa
- Zure harremanetarako telefonoa
- Zure izen-abizenak
- Ikasketak bertan egingo dituzun ikastetxe edo unibertsitatea
- Egingo dituzun ikasketak

14. Eskaera bukatu eta izenpetu eta entregatzeko izenpetu dut, baina datu inportanteren bat aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?

Bukatu eta inprimatu ondoren, eskaera ezin da aldatu. Zuzendutako datuekin beste eskaera bat egin, bukatu, inprimatu eta entregatu behar duzu. Balio ez duen eskaera zure zerrendan geratuko da eta beka tramitatzen duenak, geroago, ezabatuko du.

15. Formulario osoa bete dut, zergatik inprimatu behar dut?

Datuak on-line aplikaziora sartzeak ez du eskaera gisa balio. Agiria inprimatu behar da eta eskatzaileak eta berorren elkarbizitza-unitateko adin nagusiko pertsonak izenpetu behar dute, gainontzeko dokumentazioa gehitu behar diote eta ikasten ari den Unibertsitateko beka-unitatean entregatu behar da.

Erreziboa, behar bezala zigilatua eta eskaera entregatu izana egiaztatzeko, gorde behar da. **ORDUAN BAKARRIK IZANGO DA BALIAGARRI.**

ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA

16. Non entregatuko dut eskaera?

- **UPV/EHUn matrikulatutako ikasleak:** ikasketak egingo diren zentroan entregatu beharko da eskaera, matrikula egiteko hitzordua ematen dioten egunean. Irailaren 17a baino lehenago egitea gomendatzen da, UPV/EHUK matrikula-tasak beka ebatzi arte ez kobratzeko.
- **Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako beste unibertsitate edo zentro batzuetan matrikulatutako ikasleak:** eskaera unibertsitatean edo goi mailako zentroan bertan zuzenean entregatzea gomendatzen da.
- **Euskal Autonomia Erkidegotik at matrikulatutako ikasleak:**
 - ✓ **Ondorengo unibertsitateetakoren** batean matrikulatutako ikasleak: beka-eskaera hantxe bertan entregatzea gomendatzen da, beka-zerbitzuan edo zentroko idazkaritzan.

UNED	Nafarroako Unibertsitatea
Kantabriako Unibertsitatea	Salamanca Unibertsitate Pontificia
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea	Comillas Unibertsitate Pontificia
Salamanca Unibertsitatea	La Coruña Unibertsitatea
Valladolideko Unibertsitatea	Errioxako Unibertsitatea
Zaragozako Unibertsitatea	Burgosko Unibertsitatea
Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa	Errioxako Unibertsitate Internazionala

- ✓ **Aurrekoetakoren bat ez den beste unibertsitate batean** matrikulatutako ikasleak: eskaera Zuzenean-go edozein bulegotan edo edozein erregistro baimendutan entregatzea gomendatzen da.
- ✓ Unibertsitateaz kanpoko **goi mailako ikastegietan** matrikulatutako ikasleak: eskaera Zuzenean-go edozein bulegotan edo edozein erregistro baimendutan entregatzea gomendatzen da.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

17. Beka eskatzen duten pertsona guztiek derrigorrean aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskabide-inprimakia, behar bezala beteta, eskatzaileak eta 16 urtetik gorako familia-unitatea osatzen duten gainerako pertsonen sinatuta. Zenbait orritan izenpetzea derrigorrezkoa da.
- 2017ko abenduaren 31ko errolda kolektiboa. Ez da banakako errolda onartuko.
- Libretaren edo banka elektronikoaren inprimatzearen fotokopia, eskatzaileak titular gisa agertu behar du, eta banku-libretaren edo kontu korrontearen kontu-zenbaki osoa (IBAN barne).

18. Eskatzailearen egoera pertsonalen arabera derrigorrean aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskatzailearen gurasoak dibortziatuta edo bananduta badaude: dibortzioari buruzko sententzia eta hitzarmen arautzaile osoa.
- Ikasketak direla eta ohiko bizilekutik kanpo bizi behar badu:
- Alokairu-kontratu osoa eta izenpetua, eta fidantza eta 1. hilabetea ordaindu izana justifikatzeko agiria.
- Ikasleen egoitzan plaza erreserbatzearen ziurtagiria, kostua adieraziko duena, eta 1. hilabetea ordaindu izana justifikatzeko agiria.
- Abisu inportantea nazio edo nazioarte mailako mugikortasun-programetan ari diren ikasleentzat: 2. seihilekoaren alokairu-kontratua hasieran entregatzerik ez badago, abisatzea gomendatzen da, eskaera dokumentazioa osorik egon arte ez tramitatzeko.
- Pertsona elbarrituen kasuan: elbarritasun-maila aitortzen duen Aldundiaren ebazpenaren kopia.
- Eskaera pertsona independente gisa (gurasorik gabe) egiten bada:
- Alokairuan bizitzen bada, kontratuaren kopia.
- Emantzipazio-programa batean badago, ziurtatzeko agiria.
- Egindako gradukoa ez den unibertsitate batean mastererako beka eskatzen badu: batez besteko nota agertzen duen espediente akademikoaren ziurtagiria.
- Aginduaren 30. artikuluan agian aurkeztu beharreko beste agiri batzuk jasota agertzen dira, ikasle bakoitzaren egoera pertsonalaren arabera.